

GERNIKA DEIALDIA. Haritz kimuak landatzen hasi dira leku sinbolikotan



GAIZKA IROZ

Matalasen herrian egin dute lehen haritz landaketa

Gernika Deialdiari jarraiki lehen kimu landaketa egin zuten atzo Mithikilen (Zuberoan), Matalas jaio zen herrian. Hori izan da lehen landaketa egiteko aukeratu duten tokia. Biharko iragarrita daude gainontzeko landaketak Saran, Hernanin, Gasteizen, Amaiurren eta Enkarterrietan. 20 bat lagun elkartu ziren Maulen, Jai Alaiaren aurrean arratsaldeko 18:00etan. Ekitaldiari hasiera emateko, Dominike Agergaraiak Matalasen historia go-

gorarazi zuen. Matalas apaiza Detreville kondeari oldartu zitzaion, herritarren laguntzarekin, zuberotarrak zerga garestiak ordaintzera behartzen zitueltako. Halaber, Jose Etxebarnek Koldo Izagirreren olerki bat irakurri zuen. Horren ondoren, Mithikilera joan ziren, Matalasen jaioterrira, eta Larruriko plazan haritz kimua landatu zuten. Gernika Deialdiak antolatutako kimu landaketekin bat egiten duela esan du EAE-ANV alderdiak ere.

ATXILOKETAK. Furgoneta bat ebasten ari ziren, Poliziak dioenez

**Frantziako Poliziak
ETAko ustezko bi kide
atxilotu ditu Bourgesen**

Xabier Agirre eta Xabier Etxebarria dira atxilotuak, Poliziaren arabera

Agentziak | BAIONA

Ustezko bi etakide atxilotu zituen Frantziako Poliziak ostegunetik ostiralerako gauean, Bourgesen (Frantzia erdialdea). Atxiloketa 00:30etan gertatu zen, ustez furgoneta baten ebasten ari zirenean. Atxilotuak Xabier Agirre Odriozola eta Xabier Etxebarria Jauregi dira. Atxilotu zituzten unean, bi arma eta dokumentazio faltsua zeramatzen beraiekilari. Zenbait egun lehenago Montpellierrren lapurtu auto batean zeuden. Autoak matrikula faltsuak zeuzkan.

Atxilotuak Bourgeseko komisaldegira eramane zituzten. Orleanseko Polizia Judizialak hartu zuen inkesta bere gain, DNA-

Tarekin batera. Ondoko orduetan Parisera eramane beharrak zituzten.

Espainiako Poliziak ETaren *Aranba* komandoko partaide izatea leporatzen die. 2001eko urriaren 19an, Poliziak hauen etxeak miatu zituen Azpeitian. Biek ihes eginga zuten ordurako. Hauenarekin batera Joseba Segurola Kerejetarena ere miatu zuten. Hirugarren honek ihese-

ERREAKZIOAK

Angel Acebesek Frantziako Poliziaren «eraginkortasuna» txalotu du eta poza agertu

an jarraitzen du. Zehazkiago, *Aranba* komandoaren baitako *Jaiza* komandoa osatzen zuten hiruek, Polizia iturrien arabera. Besteak beste Lakuntzako La Universal diskotekaren kontrako atentatu leporatzen diete.

Angel Acebes Espainiako Barne ministroak Frantziako Polizia txalotu zuen. ETak atentatuak egiten jarraitzeko asmoa duela adierazi zuen ministroak. Poliziaren lanaren «eraginkortasunaren» gain ezarri zuen, azken aldian atentaturik ez gertatu izana. Frantzian, azken zazpi egunetan bost ustezko etakide atxilotuak izan direla azpimarratu zuen. «Bide onean goaz».

Bestalde, espainiar justiziak joandean atxilotu Karlos Saez Egilazaren kontrako estradizio eskaera aurkeztu zion Frantziari. *Xaki*-ren kontrako auzibidearen baitan ezarri zioten nazioarteko atxilotze agindua.

LABURAEAN

Asteburu honetan iheslari politikoak egingo zaizkien omenaldietan parte hartzera deitu du Askatasunak

Askatasunak dei egin du asteburu honetan iheslariak egingo zaizkien omenaldietara joateko. Gaur Hernanin, Eskoriatzan eta Donostian —azken honetan 19:00etan— eta Portugaleten —17:30etan— izango dira; eta bihar, Gernikan —13:00etan— eta Pasai San Pedron. Horren haritik, Portugaleten Angel Alcalde iheslariari herritarrek egingo dioten omenaldia debekatzeko eta Ertzaintzak Alcalde atxilotzeko eskatu zion atzo PPko legebiltzarkide Carlos Urquijok Eusko Jaurlaritzari.

Goar Jimenez presoaren gurasoek auto istripua izan dute semea bisitatzerantz zihoazela

Goar Jimenez euskal presoaren gurasoek auto istripua izan zuten, hilaren 12an, Alcala Mecoko espetxera bere semea bisitatzerantz zihoazela, atzo Askatasunak jakinarazi zuenez. Preso bat bisitatzerakoan aurten izan den lehen auto istripua da. Gurasoak onik irten ziren eta bisita egin ahal izan zuten.

Marian Perez del Rio preso ohiari ongi etorria egingo diote bihar, Algortan

Marian Perez del Rio euskal preso ohiari ongi etorria egingo diote, bihar, eguerdiko 13:00etan, Algortan. Perez del Rio urtarrilaren 7an ateratu zen kalera Martuteneko espetxetik zigorraren hiru laurdenak bete ondoren. 1992an atxilotu zuten Txetxu Fernandez bere senarrarekin batera. Senarrak espetxean segitzen du.



ALFREDO ALDAI / EFE

Aski Da! plataformako kideek atzo aurkeztu zuten ekimena.

Konstituzioaren aldeko ekitaldi politiko bat antolatu du Aski Da! plataformak urtarrilaren 25erako

Aski Da! Plataformak Konstituzioaren aldeko ekitaldi politikoa antolatu du *Derrigorrezko askatasuna. Gora Konstituzioa* lelopean. Urtarrilaren 25ean izango da Bilboko La Casillan arratsaldeko 19:00etan. Bertan, hamazazpi pertsonen «Euskadin ez abertzaleentzat indarrean ez dauden Konstituzioaren artikulatuak» aipatuko dituzte. Fernando Savater plataformako kideak Konstituzioak EAEn duen «garrantzia eta beharra» nabarmendu zuen atzo.

Zigorrek gogortzeko neurriekin «kezkatuta» azaldu da Ignacio Gordillo fiskala

Ignacio Gordillo Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskal atzo adierazi zuenez, «terrorismoaren kontrako borrokan egin nahi den gehiegizko aldaketa legislatiboak kezkatzen nau». Bestalde, Jose Maria Michavila Espainiako Justizia ministroak uste du neurri horien inguruan PSOErekin akordioetara iritsiko direla PP-PSOE itunaren baitan.

Kepa Pikabea presoari 192 urteko espetxe zigorra ezarri dio Auzitegi Nazionalak

Espainiako Auzitegi Nazionalak 192 urteko espetxe zigorra ezarri zion Kepa Pikabea euskal presoari, 1983an Tolosa inguruan Guardia Zibilaren patruila baten kontra atentatu egiteagatik. Bestalde, Auzitegi berak Joseba Urrosolo presoari 58 urteko espetxe zigorra ezarri zion, 1992an Bartzelonan Armadako bi kide hiltzeagatik.